

## **ARLEP BARRUTIKO III. KAPITULUAREN DEIALDIA ETA KAPITULARRAK HAUTATZEKO PROZESUA “Senitarteak amestu de ehundu”**

Madril, abuztuak 26, 2019

Anai eta Asoziatu bihotzekoak:

Nire agur onenak helarazten dizkizuet, udako atsedena amaitzean dagoen honetan eta ikasturte berria prestatzeko bidean garenean. Zirkular honen izenburuak adierazten duenez, Arlep Barrutiko III. Kapituluaren deialdi ofiziala bidaltzen dizuet. Beraz, Arlep Barrutiko III. Kapituluak deitua gelditzen da. Biziko dugunak lagun diezagula Fundatzaileak eta lehenengo Anaiak utzi ziguten ondarea suspertzen. Kapitulu honen helburu nagusiak ez luke Barrutia eraberritzea izan behar gutako bakoitza konbertitzea baizik, benetan nahi dugun horretan Barrutia eralda dadin.

### **DEIALDIA**

2019-2020 ikasturtearen hasieran gaude eta komeni zaigu kontuan edukitzea Barrutiaren bizitzan hain garrantzitsua den gertaera honek berarekin dakartzan aurreikuspenak.

Ondo datorkigu Araudiak Barruti Kapituluaren burutzapenaren inguruan dioena gogoratzea.

*Barruti Kapituluak asanblada pastoral eta administratiboa da, Anaien arteko batasun sakona adierazten duena eta, zuzenean nahiz ordezkatuta, Barrutiko gogoeta- eta erabakitze-instantzietan aktiboki parte hartzeko aukera ematen diena.*

*Anai Ikuslariak bilarazten du Barruti Kapituluak. Barrutiko bizitzaren alderdi guztiak ebaluatzen ditu; gogoan du tokiko egoera eta berriztapen-, egokitze edo garapen-proiektu zehatzak programatzen ditu etorkizun hurbilerako. Ebaluazio eta egitasmo horiek Elizaren eta Anaidiaren arau eta orientabideen argitan lantzen dira.” (Araudia 137)*

Dakizuen bezala III. Kapitulu hau joan zen ikasturterako zegoen programaturik, baina barruti-egitura berria abian jartzea hain gertu zelarik eta animazio-elkartearen zerbitzua ere hasi berria, horrek guztiak Anaiburu Orokorrari urtebetez atzeratzea eskatzera eraman gintuen.

Joan zen martxoan hasi genituen Asanblada honen prestaketak. Otsailaren 23ko Barruti Kontseiluak baietsi ondoren lehenengo lan-dokumentua, zeinetan egutegi bat ezartzen zen, eta abian jartzen ziren Prestaketa Batzordea eta Estatutuen Batzordea.

**Prestaketa Batzordea** Anai hauek osatu zuten: Jose Antolinez, Mikel Balerdi, Antonio Botana, Juan Bautista de las Heras, Miguel Ángel Sanz eta Jorge Sierra-k. **Estatutuen Batzordea**, berriz, Anai Jose Javier Cabrero, Juan Jose Brunet, Miguel Tena-k eta Fernando Casas jaunak. Hauen zeregina estatuen dokumentua berrikustea da, une honetan “ad experimentum” fasean baitago, Kapituluak berrets dezan haren edukia eta Anaiburu Orokorrari bidalia izan dadin baiespen ofiziala jasotzeko.

**III. Kapitulu** honek hiru ekitaldi izango ditu. Lehena 2020ko urtarrilaren 3 eta 4ean egingo da. Bigarrena 2020ko uztailaren 6tik 9ra. Biak, Llíria (Valentzia). Hirugarren ekitaldi bat ere egin beharko dugu 46. Kapitulu Orokorra bukatu ondoren, Araudiak adierazten duenaren arabera.

Prozesu osoan begi-bistan izango dugun goiburua eta Barrutiaren indar-lerroak bultzatuko dituen “**Senitarteak amestu eta ehundu**” izango da. Ziur naiz esaldi honek barnetik motibatuko gaituela eta geure parte hartzea adoretuko duela prozesu osoan.

III. Kapitulu honek landu behar dituen gaiak buruz, Estatutuek honela diote: “[Barruti Kapituluak] landuko ditu Araudiak agintzen dituen gaiak, Kapitulu Orokorretik datozen orientabideak, Barrutiaren Estatutuak, Barruti Kapituluaren beraren aurreko erabakiak, eta Barrutiko Salletar Hezkuntza Misiorako Asanbladaren proposamenak.” (Estatutuak 5.a.2)

Jada 9 urte daramatzagu Arlep Barruti gisa. Dagoeneko denboraldi aski luzea. Egungo inguruabarrak kontuan izanik, aldaketa nabarmenak izan dira 2010eko irailaren bata hartako egoeratik hona, alderdi batzuetan behintzat. Adibidez, azken Kapituluaren elkar animatzeko eta antolatzekeko modu berri bat jarri genuen abian, Elkarre Zonaldeak. Denboraren halabeharrezko joanak, modu guztiz azkarrean bizi ditugun aldaketek, Anaion errealitate demografiko desafiataileak, salletar elkarten konfigurazio berriak eta, seguruenik beste zerbaitek errealitatek, beste erabakiak hartzea eta ekintzabide errealistak finkatzera behartuko gaituzte, hezkuntza misioarekin leial izaten jarrai dezagun, kokaturik gauden ingurunerako elkarte biziera esanguratsu eta nabarmen batez.

Baina dena delarik ere, orain, Barruti gisa ibilbidea hasi genuenean bezala, ziur gaude datorren III. Kapitulu hau grazi garaia izango dela guztiontzat. Aldien irakurketak adierazten digu garai berezi eta pribilegiatua murgildurik gaudela, garai berri, Jainkoaren garaian. Honek bultzatzen gaitu senidetasun-dohaina

bizitzera eta gizadi berriaren, Nazareteko Jesusen, ikono izatera, salletar karismaren arabera.

### KAPITULARREN HAUTAKETA-PROZESUA (5.c art.)

Aurreikusitako planaren arabera, abian jarriko dugu **Kapitularrak hautatzeko** prozedura.

- **Eskubidezko kide:**  
Araudiak dioenaren arabera, **eskubidezko kide** dira Anai Ikuslariak, Titularra eta Laguntzaileak, Barrutiko beste Kontseilariekin batera.
- **Hautatuko kideak:**  
Datozen hilabeteetan, **irailean eta urrian, 30 Anai hautatuko** dira:
  - o Irailaren lehenengo egunetan, Anai bat hautatuko da 15 elkarte-zonalde bakoitzean bertako partaideen zerrendatik, aldezturik aurretik eskubidezko kapitular direnen izenak kendu ondoren.
  - o Ondoren, urrian zehar beste 15 Anai hautatuko dira zerrenda bateratu batetik, elkarte-zonaldeetan jada hautatuak izan direnen izenak kenduak izan ondoren.
- **Izendatutako kideak:**  
Ondoren, aurreikusia dago Anai Ikuslariak eta bere Kontseiluak beste 4 Anai izendatzea “Anaien ordezkariak orekatua segurtatzeko, kontuan izanik adin-talde ezberdinak, kompetentziak, funtzioak eta zonaldeak” (Estatutuak 5.c.3).
- **Gonbidatutako kideak:**  
Era berean, Kontseiluak baietsi zuen Asoziatuen Koordinakundeko 6 sekular asoziatuek eta Fernando Casas-ek, Asoziatu eta Barrutiko Kontseiluko kide iraunkor denak, **gonbidatu** gisa III. Kapituluaren parte hartzea.  
  
Ondo dakigu salletar elkarteetako kide diren asoziatu eta salletarren parte hartzea Kapituluaren, Estatutuak diotenaren arabera dela. III. Barruti Kapituluaren erantzukizuna da, etorkizunari begira parte-hartze honi buruz gomendio eta alternatibak proposatzea, hala irizten badio.  
  
Gainera, Relem-eko arduraduna den Anai **Aidan Kilty** Kontseilari Orokorrari gonbidapena bidali zaio, baita Relem-eko Barrutietako Anai Ikuslari Titularrei ere, Ipar Belgikako Delegatuari eta Anai Maristen Probintziala den Anai **Juan Carlos Fuentes**-i (Mediterraneoko Probintzia), nahiko balute gonbidatu gisa parte har dezaten.

### ELKARTE ZONALDEETAKO 15 ANAI HAUTATZEKO PROZESUA (5.d art.)

Elkarte-zonaldeetako Anai Kapitularren hautaketa egutegi honen arabera egingo da:

- o Anaiak **Kapitular bat** hautatuko dute beren **elkarte-zonaldeko Elkarteetako** Anaien artean (ikus zonalde bakoitzeko zerrenda).

- Anai bakoitzak txartelean bere elkarte-zonaldeko Anaien arteko Anai baten izena idatziko du kapitular hautatua izan dadin.
- **Irailaren 15erako** Probintzial Etxean egon behar dute (Calle Marqués de Mondéjar, 32. 28028 Madrid) elkarte bakoitzeko gutun-azalak botazioen txartelekin, argi adieraziz elkartearen izena.
- **Irailaren 17an**, 10etan, bilduko da Zenbaketa-batzordea.
- **Irailaren 19an** emango dira ezagutzera botazioaren emaitzak helbide elektronikoz.
- **Irailaren 25ean** bigarren fasean hautatuak izan daitezkeen Anaien zerrenda bidaliko da, eta jarraituko den dinamika azalduko.

## ZENBAKETA-BATZORDEA

Zenbaketa-batzordea osatuko dute Ismael Beltran, batzorde-buru izanik, Felipe Garcia eta Juan Antonio Rivera Anaiak eta Jaime Gonzalez jaunak, idazkari gisa.

Bihotzez desio dut gertaera honek gure esperantzen susperraldia ekartzea eta senti dezagula ustekabeko bidetatik gidatzen gaituen Espirituaren berritasuna. Desio dut gertaera honen protagonistak izan gaitzela, gure senidetasuna aberats dezagula eta misioan izango ditugun dei berrietara adi jarrai dezagula. Desio dut jar gaitzela kapitulu-egoeran orain bertan, etorkizun-lerroak marrazten joan gaitzen datozen urte hauetan.

Elkarteen animaziorako materialak prestatzen dituen taldeak eskainiko dizkigu laguntzak, III. Kapituluarekin gogoeta eta otoitz egiten, eta konprometitzen joan gaitzen.

Barruti-egutegian 2020ko martxoaren 7a erreserbaturik dugu elkarte-zonaldeetan berriazko Foro batean pate har dezagun; salletar elkarteetako kide guztiek Kapituluaren lan eta gogoetei geure ekarpena eskain ahal izan diezaiegun.

Kapituluaren lehenengo ekitaldian (Liria, 2020ko urtarrilak 3 eta 4) hurrengo hilabeteetan (2020ko urtarriletik uztaile) jarraibide izango diren lan-lerroak zehaztuko dira. Horregatik, lehenengo ekitaldi honetan osatuko diren lan-talde ezberdinek bidaliko digutenari oso adi egotea eskatzen zaigu, bertan azalduko baitigute zein alderdik gidatuko duten ondorengo gogoeta eta lanak, bigarren ekitaldiari begira.

Kartsuki desio dut, Fundatzailearen heriotzaren Hirugarren Mendeurren eta Salletar Jubileu Urte honetan, hainbat eta hainbat Anaien eta Salletarren leialtasunak argi dezala gure ibilbidea.

Ikasturtearen hasiera zorionsua opa dizuet guztioi!

Anai Jose Roman Perez Conde, FSC  
Ikuslari Titularra  
Arlep Barrutia